

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EREMU KALTEBERETARAKO JARDUKETA PROGRAMA (2021-2025)

Urak nekazaritza jatorriko
nitratoekin kutsatzea



Zalantzak eta
iradokizunak
hemen jasoko dira:

programaZZW@euskadi.eus

Izen-abizenekin edo sozietate
izenarekin eta ustiapen
kodearekin identifikatu beharko
da, halakorik izanez gero.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

NEKER, Nekazaritza Itelketa eta Garapenetako Euskal Erakundea.

“

ZER?

”

91/676/EEE Zuzentaraua, urak nekazaritzan erabilitako nitratoek eragindako kutsaduratik babesteari buruzkoa.

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=OJ:L:1991:375:FULL&from=ES>



Europa osoko uraren kalitatea babestea da helburua, nitratoek lurrazaleko eta lurpeko urak kutsatzea saihestuz eta **“nekazaritzako jardunbide egokien”** erabilera sustatuz.

Estatu kideek nitratoek ura kutsatzeko arriskua duten eremuetan nahitaez aplikatu **beharreko jarduketa programak** ezarri behar dituzte, kutsadura prebenitu eta murrizteko neurriekin.


“

NON?

”

Zure partzelak eremu kalteberetan dauden ikusi dezakezu esteka honetan:

<https://www.geo.euskadi.eus/geoestudioa/apps/webappviewer/index.html?id=aa430700f41245909d2339275890fef5>



NOLA?

Hau da EAEko eremu kalteberetarako **Jarduketara Programa** 2021-2025 aldirako:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021003185>



NEIKER. Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea.

Ur ibilguetatik hurbil dauden lurretan ongarriak aplikatzeko, gutxienez **3 metroko** zerrenda errespetatu behar da ongarritu gabe, aspertsoreekin, ongarrigailuekin, lainoztagailuekin edo banatzaileekin aplikatzen direnean, eta gutxienez **5 metrokoa**, kanoiarekin aplikatzen direnean.



Pixabay (Creative Commons Lizentzia).


Higadura arriskua duten lurretan, malkartsuetan eta inklinatuetan, arraste arriskuak handiagoak izaten dira forma likidoetarako. **% 20tik gorako malda duten zonetan, ezin izango dira forma likidoak erabili.**

Higadura prozesu larriak, oso larriak edo muturrekoak dituzten eremuetan, Euskadiko Lurzoruen Higadura Maparen arabera, ongarria ereintzan lurperatu behar da.

<https://www.geo.euskadi.eus/lurzoruen-higaduraren-mapa/s69-geodir/eu/>



Jatorri organikoko nitrogenoa.
Inoiz ere ezingo da gainditu
170 kg N/ha-ko muga urtean.



Iturria: 1078/2014 ED, babes zerrendak aldatuta.

Debekatuta dago ongarri mota oro aplikatzea, minerala zein organikoa, urak hartutako lurretan, izoztuetan edo elurtuetan.



Pixabay (Creative Commons Lizentzia).

1 Taula.

Laborantza ziklo bakoitzeko gehieneko dosi nitrogenatuak eta aplikazio murrizketak

Laboreak	Gehieneko dosia* (kg N/ha)	Banaketa (aplikazio murrizketak)
Garia eta tritikalea	190	Ereitean, ongarri nitrogenatu mineralen % 30 baino gehiago ez aplikatzea.
Garagarra	160	Aurrekoa bezala
Oloa eta zekalea	150	Aurrekoa bezala
Artoa	220	Ereitean, ongarri nitrogenatu mineralen % 40 baino gehiago ez aplikatzea.
Ilar proteaginosoa	50	Ereitean aplikatu
Babarruna eta beste lekale batzuk	50	Aurrekoa bezala
Lekak	50	Aurrekoa bezala
Ekilorea	80	Murrizketarik gabe
Koltza	200	Ereitean, ongarri nitrogenatu mineralen % 30 baino gehiago ez aplikatzea.
Patata	200	Ereitean, ongarri nitrogenatu mineralen % 30 baino gehiago ez aplikatzea
Erremolatxa	200	Aurrekoa bezala
Belardiak	250	Ereitean, ongarri nitrogenatu mineralen % 30 baino gehiago ez aplikatzea.
Bazka lekadunak	50	Ereitean, ongarri nitrogenatu mineralen % 40 baino gehiago ez aplikatzea
Porrua eta tipula	170	Aurrekoa bezala

(Aurrekoa lekaduna edo lugorria bada, gehieneko dosia 20 ONU/ha murriztuko da.)

“

Abeltzaintzako instalazioak

”

Eremu kalteberetako abeltzaintzako instalazioek 515/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte (515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustiatzarietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena) eta modu berezian arreta jarriko dute **ongarrien eta purinen** biltegitratze eta erabileran.

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eli/es-pv/d/2009/09/22/515/dof/eus/html/>



Simaur solidoak **sastegi estali** batean biltegitratuko dira, ganadua dagoen instalazioetatik bereizita. Sastegiaren zolata iragazgaitza izango da, likidoak xukatzeko maldarekin, eta horiek bilketa hobi estanko batera bideratuko dira.



Pixabay (Creative Commons Lizentzia).



NEIKER. Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea.

Gorozkiak modu likidoan maneiatu behar badira, itxitako hobi estanko bat (modu naturalean edo artifizialean) eduki beharko da horiek biltzeko eta biltegitratzeko, edo sistema baliokide bat. Lurrazaleko urak iragazteko eta kutsatzeko arriskua saihestuko da, gainezka eginda, galerarik ez dela gertatuko ziurtatuz.

Ukuiuraturtako azientak sortutako produktu organikoak biltegitratzeko gutxieneko edukiera **hiru hilabetetan** sortutakoak biltzeko adinakoa izango da.

“

“Nekazaritzako jardunbide egoki” hauek egitea gomendatzen da:

”

- ✓ Ongarritze nitrogenatua espero den errendimenduaren arabera doitzea.
- ✓ Laborearen eskaera handieneko uneetan ongarritzea, ereinaldian izan ezik.
- ✓ Ureztatzean, kantitateak doitzea eta aplikazioa zatikatzea, jariatzea eta lixibiazioa ahalik eta gehien murriztuz.
- ✓ Makineria egokia erabiltzea, bai ongarritzeko bai ureztatzeko, modu uniformearen aplikatu ahal izateko.
- ✓ Ahal den neurrian, saihestu lurzoru biluzia eurite garaian, batez ere neguan.
- ✓ Laboreak txandakatzen saiatzea, lekadunetan arreta berezia jarriz.



Pixabay
(Creative Commons Lizentzia).

Kontuan izan, batez ere, betebeharrak hauek:

- ➔ **1. Landa koadernoak bete eta behar bezala eguneratuta edukitzea, eta ongarritze erregistroa idaztea.**
- ➔ **2. Araudian ezarritako ongarritze mugak ez gainditzea.**
- ➔ **3. Ongarritze zerrendak errespetatzea eta maldak, klimatologia eta gainerako baldintzatzaileak kontuan hartzea, nitratoen lixibiazioa ahalik eta gehien saihesteko.**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

• Argitaraldia: 1.a, 2021eko urria

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

Ale-kopurua: 4.000

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Maketazioa eta inprimaketa: INGUGOM S.L.

L.G.: LG G 664-2021